

Arrasateko Udal Biblioteka

MEMORIA

2022



AURKIBIDEA

AURKEZPENA	3
HISTORIA ETA EBOLUZIOA	4
BAZKIDEAK	5
BILDUMA	6
MAILEGU ZERBITZUA	8
BIBLIOTEKA ETXERA MAILEGU ZERBITZUA	10
MAILEGATUENAK	11
ELIBURUTEGIA PLATAFORMA DIGITALA	14
ERABILTZAILEEN ESKAERAK	15
TOKIKO BILDUMA	17
LAN TEKNIKOAK	17
JARDUERAK	18
TOKIKO BILDUMAREN ERABILERA	21
INTERNET ETA ORDENAGAILUEN ZERBITZUA	22
WEB ORRIA ETA SARE SOZIALAK	23
IRAKURKETA SUSTATZEKO JARDUERAK	24
LITERATURA SOLASALDIAK.....	24
IPUIN-JOLAS TXOKOA HAUR ETA HELDUENTZAT	26
INGELEASEZKO MINTZATALDEA	26
IPUIN KONTAKETAK HAURRENTZAT	27
HELDUENTZAKO KONTAKETAK	29
AHOZ AHO 2022.....	29
CAROLINA RUEDA.....	29
HELDU DA KONTUA.....	30
LIBURUAREN EGUNA 2022	31
LIBURU AURKEZPENAK.....	33
BIBLIOTEKAREN EGUNA 2022.....	34
BIBLIOPORRAK ETA NEGUKE GIDA	36
IRAKUR PUNTUA	37
MUNDUTIK ARRASATERA.....	38
IRAKURKETA ERRAZA IRAKURLEEN TALDEA.....	40
BISITA GIDATUAK.....	40
MINTZOAN KUX-KUX.....	42
INTERES GUNEAK	43
ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA	44
LANTALDEA	47
PRESTAKUNTZA.....	48
INSTALAZIOAK ETA EKIPIAMENDUAK	49
KULTURATE	49
SANTA MARINAKO AUZO BIBLIOTEKA.....	50
FINANTZAKETA	51
LIBURUTEGI PUBLIKOEN ESTANDARREN BETETZE MAILA	53
ONDORIOAK ETA LAN LERROAK	54
BIBLIOGRAFIA	56

AURKEZPENA

Memoria epe motzerako balio duen kudeaketa-baliabide bat da, funtsezko tresna gardentasuna emateko erakunde bati eta haren jarduerari. Kudeatzen ditugun zerbitzuen berri ematen du, herritarrak informazioa jasotzeko eskubidea baitu. Hori da, hain zuzen, txosten honen helburu nagusia: azaltzea zertan ari garen.

Memoria honek alderdi prospektiboa ere badu, etorkizunean hobetzeko proposamenak ere jasotzen baitira. Bibliotekako lankide denen partehartzean oinarritzen da, bakoitzak bere ardurapean dituen esparruen datuak eta ebaluazioak jaso baititu eta hortik abiatu gara ondorioak eta ekarpenak biltzeko orduan.

2022. urtean normaltasunez lan egin dugu, egoera berriak pandemia aurreko denborak gogorarazten digu baina aurreko poliki-poliki edukiera, distantziak eta aforo kontuak ahazten joan gara.

2022. urtean bibliotekako erabiltzaileak normaltasunez hurbildu dira, are gehiago, kultura jardueraren goseaz igarri ditugu.

Memoria honetan jaso ditugun datuak landu dira indarrean dagoen *Euskadiko liburutegi publikoen estandarrak* kontuan izanda. Estandar hauek *Irakurketa maparen* baitan argitaratu ziren 2012an. Maparen oinarritzko elementuetako bat estandarraren definizioa da, euskal udalerrietan liburutegi publikoen zerbitzua normalizatu eta orekatzen lagunduko duena.

Beraz, datu guzti hauek eta talde-lanaren helburu adostuak eta hausnarketak markatuko dizkigute aurrerantzean jarraitu beharreko lan ildo nagusiak.

Bidean ikasi duguna partekatu nahi dugu, emaitzak argitaratu eta sarean zintzilikatu, norbaiti lagungarri bazaio.

Bibliotekako lantaldea

HISTORIA ETA EBOLUZIOA

Arrasateko udal biblioteka 1966an sortu zen, Garibai etxean. 1987an Monterron Jauregia aldatu zen eta bertan bi hamarkadetan zehar eskaini zituen bere zerbitzuak. Denbora horretan izandako espazio eta irisgarritasun arazoak konpondu egin ziren San Frantzisko komentua zaharberritzean, egungo udal kultur etxea (Kulturate) eta Udal Bibliotekaren egoitza izan zedin. Birgaitze horretan, liburutegirako espazioak horretarako diseinatu ziren, eta 2007an egungo instalazio modernoak inauguratu ziren, 1.600 m² inguruko azalerarekin.

Liburutegiak bigarren zerbitzugune bat du 1991tik, Santa Marinako auzo biblioteka, haur eta gazteei zuzenduta.

2004. urtean, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean (EIPS) sartu zen, eta, ordutik aurrera, Absysnet hartu zen lan-tresna gisa, elkarlaneko online katalogoan parte hartuz.




Garibai etxea, Monterron Jauregia, Kulturate eta Santa Marina

BAZKIDEAK


Goranzko joerarekin jarraitzen dugu bazkide kopuruari dagokionez. Egun, 12.999 herritar dira bibliotekako bazkide, beraz, esan genezake **Arrasateko biztanleriaren % 60a bibliotekako bazkide** dela, iaz baino bi puntu gehiago.

Liburutegi Zerbitzuak 2021. urtean udal biblioteka guztietako bazkideen garbiketa egin zuen eta ezabatu zituen azken 10 urteetan mailegu zerbitzua erabili ez zuten bazkide guztiak. Hori da arrazoia 2021ean bat-bateko jaitsiera egoteko gure bazkide kopuruan.


Bazkideen bilakaera Kulturaten




Bazkideen bilakaera Santa Marinan



Bazkide berrien bilakaera



Bazkideak irakurle motaka




BILDUMA

Biztanleko 2 dokumentu egokitzen zaizkio Arrasateri sarbide libreko funtsetan Euskadiko liburutegi publikoen 2012ko estandarren arabera. Arrasatek 21.610 biztanle dituela kontuan hartuta, sarrera libreko bilduma 43.220 dokumentu ingururekin osatu beharko litzateke.


Helduen bibliotekan, haur eta gazte bibliotekan eta Santa Marinako auzo bibliotekan dauden dokumentuen baturak 53.344 ematen du. Beraz, ondorioztatu dezakegu betetzen dugula bildumaren tamainari dagokion parametroa; baina adierazle honek ez digu azaltzen bilduma gaurkotua dagoen ala ez. Adierazle hau, beraz, erlazionatuta dago urtero erosi beharreko dokumentu kopuruarekin. Bilduma gaurkotua mantentzeko, urtero bildumaren % 10 berritu behar da eta, era berean, bildumaren % 10 xahutu. Beraz, urtero 4.322 dokumentu eskuratu beharko genituzke. 2022ean 3.527 eskuratu dira, hau da, bilduma % 8,16 berritu dugu. Gure bibliotekako zerbitzu gutunean ere jasota dagoen konpromisoa da bildumaren % 10 berritzea.

Bildumak etengabeko aldaketak izaten ditu, komunitatearen interesak aldatzen direlako, gaiak zaharkitu eta liburuak hondatzen direlako. Xahuketak ahalbidetzen digu erabiltzaileentzat garrantzitsua, erakargarria eta erabilgarria den bilduma bat izatea. 2022an 1.578 dokumenturi baja eman diegu eta honekin, sarbide libreko bildumatik % 3,6 xahutu dugu.


Bilduma Kulturaten: 67.432 dokumentu




Bilduma Santa Marinaran: 6.358 dokumentu




3.527 dokumentu berri 2022ean



3.527 dokumentu berri 2022an jatorriaren arabera




Bilduma kokagunearen arabera




Hurrei zuzendutako dokumentuak bildumaren %30 izatea komeni da eta gazte eta helduentzako dokumentuak % 70. Adierazle hau ondo betetzen dugu Arrasaten.

Helduentzako bilduma hizkuntzaren arabera



Haurrentzako bilduma hizkuntzaren arabera



Euskaraz argitaratzen denari arreta berezia jartzen diogu. Eusko Jaurlaritzak egindako Euskarazko argitalpenei buruzko XV. txostenaren arabera, testu-liburuak alde batera utzita, haur eta gazte literatura da euskarazko literatur argitalpenen industriaren zati garrantzitsuenak, fikziozkoak ez diren liburuak gero eta, azkenik, helduentzako fikzioa. Liburu bildumak ditugu beste hizkuntzetan ere haur zein helduentzat: ingelesez, frantsesez, arabieraz, urduz, italieraz edo portugesez, besteak beste.


MAILEGU ZERBITZUA

Liburuen mailegua da liburutegiek duten funtsezko eginkizuna. 2022an liburuen mailegua % 4a igo da. Hala ere, azken urteetan gizartean eman diren ohitura aldaketak direla eta, euskarri fisikoko maileguaren bilakaerak poliki-poliki beheranzko joera erakutsi izan du eta neurri batean plataforma digitalek hartu diote erreleboa. Helduek liburu elektronikoa erabiltzen dute, haur eta gazteek oraindik papera gehiago. Ohitura aldaketa oso nabarmena da ikus-entzunezkoen maileguan. Azken urtean % 24a jaitsi da pelikulen mailegu kopurua. Aipatu behar da azken urteotan ikus-entzunezko ekosistema berri baten aurrean gaudela, izan ere, harpidetza-plataformen arrakastak markatu du ikus-entzunezkoen produkzioak izan duen aldaketa non plataforma digitalak geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari diren. Netflix, HBO, Filmin ala Amazon Prime bezalako plataforma digital ordainduak ohikoak bihurtu dira zinea kontsumitzeko ohituretan eta, ondorioz, musika eta zine ekoizleek gero eta produktu gutxiago kaleratzen dute salmentarako.


2022an mailegua bere osotasunean % 1,5 jaitsi da aurreko urtearekin alderatuta eta 42.000 dokumentu inguru mailegatu dira. Bazkideen %29ak mailegu zerbitzua erabili du eta egunero batz besteko 150 dokumentu mailegatu dira.

Eskola liburutegien gabeziari erantzuteko, herriko ikastetxeak hornitzen ditugu mailegu bereziekin; hain zuzen, 2022. urtean 1.004 dokumentu mailegatu dizkiegu.


Maileguen bilakaera Kulturaten



Maileguen bilakaera Santa Marinan




Maileguak dokumentu motaren arabera




Liburuen mailegua igo bada ere, aldizkariena eta batez ere bideoen mailegua nabarmen jaitsi da.


Helduentzako liburuen maileguak hizkuntzaren arabera



Haurrentzako liburuen maileguak hizkuntzaren arabera



Automaileguaren bilakaera



Helduen bibliotekako automailegu makina maiz “blokeatu” egiten denez, zerbitzuz kanpo egon izan da askotan aurten.

Biblioteka Etxera mailegu zerbitzua

Biblioteka Etxera 2021ean martxan jarri genuen zerbitzua da. Helburua da liburutegira gerturatzeko zailtasunak dituzten pertsonen liburuak eta bestelako materialak etxeraino eramatea. 70 urtetik gorakoak edo mugikortasun arazoak dituzten herritarrak dira onuradunak. Onuradunen langa 80 urtetik 70 urtera jaitsi dugu 2022an.

Zerbitzua martxan jarri genuenetik 9 lagunek eman dute izena, eta horietatik 2 pertsonak eskatu dituzte liburuak maileguan. Banaketak demandaren arabera egiten dira.



**BIBLIOTEKA
ETXERA**

Bibliotekako liburuak, pelikulak, diskoak eta aldizkariak etxeraino eramango dizkizugu.
Te llevaremos hasta casa libros, películas, discos y revistas de la biblioteca.

NORENTZAT · PARA QUIÉN

- 70 urtetik gorakoentzat
Para mayores de 70 años
- Mugikortasun arazoak dituztenentzat
Para personas con problemas de movilidad


Biblioteka etxera zerbitzuko kartela.

Mailegatuenak

Helduentzako liburuak




Helduentzako liburuak euskaraz




Haurrentzako liburuak



Helduentzako pelikulak



Haurrentzako pelikulak




eLIBURUTEGIA PLATAFORMA DIGITALA

Euskadiko Irakurketa Sare Publikoak eLiburutegia plataforma eskaintzen du, 54.296 dokumentuz osatua. Honen bidez, maileguan hartu daitezke liburu elektronikoak, online pelikulak, audio liburuak eta aldizkari elektronikoak.



Maileguei dagokionez, azken urteetako errealitate berrien eta pandemiaren eraginez mailegu digitala asko hazi eta hedatu da. Pandemiak bultzada handia eragin zion plataforma digitalaren mailegu zerbitzuari, 2020an gorakada handia izan baitzuen. Berriz, COVID-ak gogor erasotzen zuen unearekin alderatuta, 2022ko datuek erakusten dute zerbitzua egonkortu egin dela.

Dokumentuak eLiburutegian



■ Liburuak: 25.439
■ Filmak: 27.434
■ Audioliburuak: 671
■ Aldizkariak: 752

Maileguen bilakaera eLiburutegian




eLiburutegia plataforma interneten: <http://www.eliburutegia.euskadi.eus>

ERABILTZAILEEN ESKAERAK

Bibliotekan egunero jasotzen ditugu eskaerak, aurrez aurre eta online. Saiatzen gara ahal dugun azkarren erantzuten, eta gainera, ahalegintzen gara erantzun hori positiboa izan dadin. Dokumentu batzuk erosi egiten ditugu, beste batzuk liburutegien arteko maileguaren bidez lortzen ditugu, badira formatu digitalean eskuratzen ditugunak ere eLiburutegiaren bitartez eta gutxi batzuk ezeztatu egiten dira.

2022an **1.018** eskaera jaso ditugu, aurreko urtean baino % 8,5 gehiago. Erabiltzaileen eskaerei eman zaien baiezkoko erantzunak guztira % 94,9 dira eta ezeztapenak soilik % 5,1. Zerbitzu Gutunean jasotakoaren arabera, eskaeren % 85 eskuratzea da bibliotekaren konpromisoa, eta, bistan denez, egun, helburu hori aise betetzen dugu.



LIBURUTEGIEN ARTEKO MAILEGUA


Bibliotekak espazio eta aurrekontu mugatuak ditu, eta beraz, ezinezkoa da erabiltzaileek izan ditzaketen eskari guztiak bertako bildumarekin asetzeari. Eskari hauei erantzuteko modu bat liburutegien arteko mailegu zerbitzua da.

Autonomia erkidegoan Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak kudeatzen du liburutegien arteko mailegua, eta gainera, bere gain hartzen du zerbitzuaren gastua. Ondorioz, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea osatzen dugun 286 bibliotekok kosturik gabe jaso eta bidaltzen ditugu liburuak eta bestelako materialak liburutegi batetik bestera, erabiltzaileen beharrak asetzeko.

Arrasaten, erkidegoko sare honetatik kanpo ere eskatzen ditugu dokumentuak, bereziki Estatuko bi sare nagusienetan: biblioteka publikoen sarean, eta biblioteka unibertsitarioen sarean. Kasu honetan, udal liburutegiak bere gain hartzen ditu bidalketaren gastua eta zerbitzuaren kostua ere bai (liburu bakoitzeko 8 euro inguru).

Gure bazkideek liburutegien arteko mailegu zerbitzua bikain baloratzen dute, eta erabilera handia du.

Datuetan garbi ikusten denez, Arrasateko bibliotekak bidaltzen duen dokumentuen kopurua eskatzen duena baino askoz handiagoa da, ia hirukoitza, eta horrek esan nahi du kalitatezko bilduma daukagula, anitza eta erabiltzaileen beharrei egokituia.



Bestalde, aipatu beharra dago Kulture eta Santa Marinako auzo bibliotekaren artean liburutegien arteko mailegu zerbitzua eskaintzen dela eta erabiltzaileek eskatutako dokumentuak egun batetik bestera ekarri eta eramaten ditugula. Egunero, batzuetan, 2 dokumentu eskatzen dira.

Erabiltzaile partikularren eskaerei erantzuna emateaz gain, herriko erakunde desberdinen irakurketa klubak ere hornitzen ditugu. Bibliotekan bertan 3 talde ditugu: euskarazko solasaldien taldea, gaztelarazkoa eta ingelesezkoa. Bibliotekatik kanpo, beste 6 irakurle taldeekin kolaboratzen dugu: Fundación Goyenecheko bi talde, Aita Menni ospitaleko beste bi, San Juan de Dioseko Unidad Sagrado Corazón moduloko talde bat eta Emakume Txokoko irakurketa feministen taldea.

TOKIKO BILDUMA

Tokiko Bilduma bibliotekaren altxor preziatua da, bildumarik bereziena delako, eta bakarra. Bertan biltzen ditugu herriko egileen lanak edota herriari buruzko informazio anitza. Guztira 2.276 dokumentu daude, material mota desberdinetakoak: liburuak, aldizkariak, cdak eta bideoak. Kopuru honi gehitu behar zaizkio beste material batzuk, beraien izaera bereziarengatik ez direnak bibliotekako sistema informatikoan gordetzen: kartelak, jai-programak, esku-orriak, postalak, egutegiak edota artxibo pertsonalak. Artxibo hauek Jose Letona, Jose Maria Uranga eta Juan Leibar filantropo arrasatearrek bibliotekari dohaintzan utzitako dokumentu pertsonalak dira, eta iturri historiko bezala balio handia dute.

2022. urtean **230** dokumentu gehitu dira Tokiko Bildumako funtsera. Hauetatik berriak, hau da, 2022an argitaratuak, 24 dokumentu izan dira: 17 liburu, 5 disko eta 2 aldizkari.

Dokumentu berrien uzta oparoa izan da aurten, eta honi gehitu zaio herritarrek egindako emarien kopuru altua. Izan ere, Tokiko Bilduma osatzeko garrantzitsuak dira herritaren inplikazioa eta emariak, Arrasateren gaineko dokumentu interesgarriak lortzen baitira bide horretatik.

Azken urteetan Tokiko Bildumari bultzada eman nahian ari gara, eta ondorioz, hainbat lan eta jarduera garatu ditugu.

Lan teknikoak

Burutu diren lan teknikoen baitan, hauek dira aipagarrienak:

- Herriko bildumaren kudeaketa politika definitzen ari gara. Honek balioko digu zehazteko, besteak beste, dokumentu bakoitzetik zenbat ale gorde behar diren, zer tratamendu tekniko eman behar zaien edota nola kontserbatu behar diren.
- Herriko musika ekoizpena bildu nahian, zerrenda bat egin dugu Arrasaten argitaratutako disko, binilo eta kaset guztiekin. Asmoa da zerrenda hau herriko musikariekin partekatzea, falta zaizkigun aleak identifikatzeko eta berauek lortzen saiatzeko.
- Herriko bildumari ikusgarritasun handiagoa emateko, Arrasateri buruzko liburuei espazio bereizgarria eman diegu bibliotekan, kokaleku berria eta errotulazio berezia jarriz.
- Bikoiztutako aleak biltegira eraman ditugu, eta bertan txoko berria sortu dugu herriko liburuentzat.
- Eskaner berria erosi dugu Tokiko Bildumako digitalizazio lanak egiteko.
- Bibliotekaren web orrian Tokiko Bildumak bere leku propioa du eta poliki-poliki edukiak gehitzen ari gara.




Arrasateko funts erakargarrienak Bibliotekako kokapen berrian

Jarduerak

Tokiko Bildumaren zabalkundea egiteko hainbat jarduera egin ditugu. Gainera, herriko talde eta ikerlariekin kolaborazioa ere landu dugu.

'Lezetxiki. Neandertalen lurraldea' erakusketarako irakurketa gida


Arrasate Zientzia Elkartek Lezetxikiren gaineko erakusketa antolatu zuen 2021eko abendutik 2022ko apirila bitartean, Kultureteko klaustroan. Proiektuarekin bat egiteko, bibliografia bat osatu genuen gaiarekin lotutako liburuekin, eta interesgunea jarri genuen helduen atalean.



Bibliotekak argitaratutako gidaren azala eta erakusketaren irekiera

Kulturateko Pintura Ikastaroa


Amaia Bengoak, Kulturateko ganbaran, eskaintzen ditu pintura klaseak. Bertako ikasleek klasean margotutako kuadroak oparitu dizkiote bibliotekari, ikasketa gelan jartzeko. Gelari kolore eta bizitasun handia emateaz gain, lagun ugari etorri dira bisitan, emaitza ikustera.



Ikasketa gelako margolanak

'Ez Donk Amaitu' web orrian

Ez Donk Amaitu taldekoek 80. hamarkada Arrasaten gaiari buruzko erakusketa bat antolatu zuten 2021eko azaroan, Kulturateko klaustroan. Erakusketarekin batera, mahai-inguruak, zine emanaldiak, Biona tabernara bisitak eta beste hainbat jarduera jarri zituzten martxan. Bibliotekak parte hartu zuen proiektuan: interes guñe bat jarri genuen fonotekan eta gida bat argitaratu genuen. Egitasmo honek material ugari sortu zuen, eta *Ez Donk Amaitu* taldekoekin adostuta, bibliotekako web orrian jarri dugu material guzti hau herritarrentzat eskuragarri. Hilabete bakarrean, 146 bisita erregistratu dira web orriko atal berri honetan.



'Ez donk amaitu' txokoa bibliotekako web orrian

'Arrasate 1890-1940 Mondragón' liburua

Alberto Loiti ikerlariaren 'Arrasate 1890-1940 Mondragón' liburuan parte hartu dugu. Egindako lan nagusiak izan dira testuak orraztea, iturriak konfirmatzea, bibliografia osatzea eta liburua bera maketatzea.

Liburua Arrasateko Udalak argitaratuko du 2023an.



Liburuaren azala

Gabonetako lehiaketa

Iaz izandako arrakasta ikusita, aurten ere gabonetako lehiaketa antolatu dugu. Arrasateren gaineko interesa piztea da helburua, eta horretarako herriarekin lotutako zazpi galdera luzatu ditugu. Erantzunak bibliotekan bertan edo web orriaren bitartez emateko aukera egon da. Adin tarte guztietako 153 lagunek parte hartu dute. Erantzun zuzenak eman dituztenen artean, 8 sari zozketatu dira: 60 euroko hiru opari txartel eta herriko bildumako dokumentuekin osatutako 5 sorta.



Gabonetako lehiaketako kartela



Irabazleak saria jazotzean, Juan Ramon Mendieta zinegotziaren eskutik

'Sin permiso del rey' liburuaren aurkezpena

Maria Teresa Telleria zientzialaria da eta ibilbide profesional oso interesgarria du. Egun, Arrasaten bizi ez bada ere, jarraitzen du lotura berezia izaten familiaren partetik. Bere azken liburua herrian aurkezteko gonbitea egin diogu eta oso pozik hartu du eskaintza.

Aurkezpen honi buruko informazio osatua *Irakurketa Sustatzeko Jarduerak* atalean.

'Hitzartea km0'

Herriko idazleei ikusgarritasuna eman nahian, 'Hitzartea km0' izeneko jarduera antolatu dugu Liburuaren eguneko programazioaren baitan.

Ekitaldi honi buruko informazio osatua *Irakurketa Sustatzeko Jarduerak* atalean.

Tokiko Bildumaren erabilera

Erabilerari dagokionez, hemen datu aipagarrienak:


- Kontsulta gehien izan dituzten funtsak, Letona, Uranga eta Leibar historialarien artxiboak izan dira. Guztira 18 eskaera jaso ditugu.
- Arrasate Musikalek 50 urte bete ditu aurten, eta erakusketa bat antolatu dute azaroan zehar, Kultureteko klaustroan. Erakusketa egiteko, dokumentazio lanak egin dituzte urte osoan zehar Tokiko Bilduman. *Arrasate Press*, *Goienkaria* eta Letonaren funtsak kontsultatu dituzte batez ere.
- Ohiko ikerlariak eta kontsulta partikularrak ere izan dira urte osoan zehar, besteak beste, argazki zaharren bila, baserrien edota herriko jaien inguruko informazio bila.

INTERNET ETA ORDENAGAILUEN ZERBITZUA


Bibliotekan modu autonomoan erabiltzeko ordenagailuak eta wifia daude. Interneten nabigatu daiteke edota ofimatika programak erabili. Eskaneatu eta inprimatu ere egin daiteke.

Santa Marinar ordenagailu eta inpresora bana daude erabilgarri. 2022ko urritik wifi zerbitzua ere badago.


Ordenagailuetako saioen bilakaera




Ordenagailuen erabilera adinaren arabera




Ordenagailuetako saioen bilakaera Kulturetan




Ordenagailuetako saioen bilakaera Santa Marinar



Inprimaketak



Wifi saioen bilakaera



WEB ORRIA ETA SARE SOZIALAK

Bibliotekako web orrian albisteak, agenda, nobedadeak, online tramiteak eta zerbitzuen inguruko informazioa eskaintzen dugu: www.arrasate.eus/biblioteka


Egunero, batz bestea, 72 kontsulta egiten dira web orrian, eta hauetako % 34a euskaraz izaten dira.

Sare sozialei dagokienez, 1.923 jarraitzaile inguru ditugu Facebook, Twitter eta Instagram aplikazioetan.



Bibliotekako web orria: <http://www.arrasate.eus>

* 2020an eman zen gorakada izugarriaren arrazoia da, biblioteka itxita egon zela hilabeteetan pandemiaren ondorioz, eta erabiltzaileengana iristeko modu nagusia bilakatu zela web orria.



IRAKURKETA SUSTATZEKO JARDUERAK

Literatura solasaldiak

Euskara, gaztelania eta ingelesezko solasaldiak izan ditugu.

Euskarazko solasaldietan Alex Gurrutxaga aritu da koordinazio lanetan eta idazle hauek izan ditugu gonbidatu berezi bezala: Juanra Madariaga, Itziar Ugarte eta Itxaro Borda.

Gaztelaniazkoetan bi ziklo izan ditugu: *Literatura latinoamericana* Ane Zapatero koordinatzailearekin eta *Curso de literatura europea* Luisa Etxenikerekin.

Inglesezko solasaldietan Olwen Mears izan da koordinatzailea urtearen lehen zatian eta, udazkenetik aurrera, Jessica Oleagak bete du funtzio hori.

Solasaldiak	Saio kopurua	Taldeko partaide kopurua
Euskaraz	8	20
Gaztelaniaz	8	30*
Inglesez	5	17

* Itxaron zerrenda egon da.



Olwen Mearsekin ingelesezko solasaldietan



Itxaro Borda idazlea euskarazko literatura solasaldietan

IZEN EMATEA
Irailaren 19tik 24ra

Jarduera guztiak doan dira.

Izena eman dezakezu bibliotekan edo web orrian.

Plazak mugatuak dira eta zozketa bidez banatuko dira.

Plazak libre dauden jardueretan izena emateko epea zabalik geratuko da.

INSCRIPCIÓN
Del 19 al 24 de septiembre

Todas las actividades son gratuitas.

Puedes inscribirte en la biblioteca o en la página web.

Los plazos son limitados y se adjudicarán por sorteo.

En las actividades que queden plazas libres el plazo de inscripción continuará abierto.



info +


**Arrasateko Udal
Biblioteka**

Kulturate, Azoka Kalea 1
20500 Arrasate

943 25 20 25
688 68 91 13 (WhatsApp)
kulturate@arrasate.eus
www.arrasate.eus/biblioteka

**LITERATURA
2022-2023**

Solasaldiak
Tertulias
Gatherings





kultur
ate

2022/23 ikasturteko programazioaren berri emateko, Jone Martinezek diseinatu dizkigu triptikoa eta kartela



Ane Zapatero gaztelaniazko solasaldietan

Ipuin-jolas txokoa haur eta helduentzat

Urtarriletik otsailera burutu den irakurketa klub honetan, 4-6 urteko haurrek eta gurasoek aukera izan dute elkarrekin literaturaz gozatzeko eta ipuin, kantu, olerki eta hitz jolasak ezagutzeko. Mari Garcia dinamizatzaileak gidatu du eta hiru saioko iraupena izan du. Guztira 28 pertsonak parte hartu dute (14 haur eta beste hainbeste guraso).



Mari Garcia ipuin-jolas txokoa

Ingelesezk mintzataldea

Mintzatalde hau Jay Mann estatubatuarrak dinamizatzen du, modu boluntarioan. Jarduera 2021eko irailean hasi eta 2022ko maiatzean bukatu da. Taldea 12 pertsonak osatu dute. Guztira ordubeteko 15 saio egin dira eta jarduerak balorazio onak izan ditu.



Ingeleseko mintza taldea

Ikasturtea bukatzeko, taldeari Arrasate hobeto ezagutzeko bisita gidatu bat eskaini diogu ingelesez. Bestalde, Jay Mannen lan boluntarioa eskertzeko, bibliotekak 150 euroko bonua oparitu dio.



Arantza Otaduyk zuzendutako bisita gidatua

Ipuin kontaketak haurrentzat

Kulturaten eta Santa Marinako auzo bibliotekan ipuin kontaketak antolatu ditugu, adin tarte desberdinetako umeentzat. Kontalari hauek izan ditugu: Maider Alcelay, Maite Franko, Ixabel Agirresarobe, Pello Añorga, Iñaki Carretero, Maite Arrese, Itziar Saenz de Ojer, Saroa Bikandi eta Izaskun Mujika.

Horiez gain, aipagarriak dira bi emanaldi berezi hauek: bata 'Tximeletrak airera', Xabier Olasok eskainitako haur poesia saioa Liburuaren Eguneko programazioaren baitan; bestea

‘Ezberdin bezain eder’, Nerea Ariznabarreta eta Mariano Hurtadoren ipuin kontaketa musikatua Bibliotekaren Eguneko ospakizunetan.

Orohar, oso saio arrakastatsuak izan dira, bai parte hartze bai kalitate aldetik.

Non	Saio kopurua	Partaide kopurua orotara
Kulturaten	7	213
Santa Marinan	5	121



Xabier Olaso Santa Marinarako auzo bibliotekan



Nerea Ariznabarreta eta Mariano Hurtado Kulturaten

Helduentzako kontaketak

Ahoz aho 2022

Intujai Teatro taldeak urtero antolatzen du *AHOZ AHO* ahozkotasunaren nazioarteko jaialdia. 15. edizio honetan ere parte hartu du bibliotekak eta horri esker, Txileko *La Matrioska* konpainiaren saio bat eskaini dugu martxoan. Nicole Castillo eta Andrés Montero primeran aritu dira kontalari, eta 34 heldu bildu dira publikoan.



La Matrioska konpainia

Carolina Rueda

Ekainean, berriz, helduentzako saio bat eskaini digu Carolina Rueda kolonbiarrak, eskarmentu eta prestigio handiko kontalaria bera. Oraingoan, 25 pertsona hurbildu dira ipuinez goatzera.



Carolina Rueda

Heldu da kontua

2022ko udazkenean helduentzako euskal kontalarien zirkuitua sortu berri da, *Heldu da kontua* izenekoa. Ekimenaren baitan urtero bi kontalari sarituko ditu epaimahai aditu batek, eta bi kontalari horiek saioak eskainiko dituzte aurrez lotutako lekuetan. Lehen edizio honetan Maider Alcelay kontalari arrasatearra eta Mireia Delgado durangarra izan dira sarituak. Honen harira, azaroaren 17an Maiderrek helduentzako kontaketa saio bat eskaini du Arrasateko bibliotekan, Igor Sala musikari arrasatearrak lagunduta. Data hori baino arinago zirkuitoa martxan egongo bada ere, Maiderren emanaldiaren estreinaldia Arrasateko bibliotekan izan da eta 48 pertsona bildu dira bere kontakizun interesgarriak entzutera. Bibliotekarentzat garrantzitsua izan da zirkuito honen sorrera babestea eta bertan parte hartzea.



Maidar Alcelay eta Igor Sala

Liburuaren Eguna 2022

Apirilaren 23a Liburuaren Nazioarteko Eguna da eta ospatzeko, hainbat jarduera antolatu ditugu. Haurrentzat ipuin kontaketa bereziak egon dira, dagokion atalean azaldu bezala.

Helduentzat, berriz, Hitzartea Km0 ikuskizuna eskaini dugu. Bertan, Arrasateko 5 idazlek beren lanak partekatu dituzte publikoarekin, beraiek idatzitako lanen pasarte bat bozgoran irakurriz. Bitartean, Jokin Mitxelena ilustratzaileak hitzak irudi bihurtu ditu, zuzen-zuzenean. Idazle gonbidatuak izan dira Marian Porcel, Iker Barandiaran, Maria Oses, Arantza Otaduy eta Eneko Barberena, eta aurkezle lanak Judit Ruiz de Munainek idazle aretxabaletarrak egin ditu. Publikoari dagokionez, 54 pertsona elkartu dira aretoan eta beste 17 lagunek jarraitu dute saioa streaming bidez. Amaieran idazle guztien liburuak salgai jarri dira aretoaren kanpoaldean eta oso pozik agertu dira emaitzarekin. Bertaratutakoek ere oso positiboki baloratu dute jarduera.



Herriko bost idazleak Jokin Mitxelena marrazkilariarekin eta Judit Ruiz de Munain aurkezlearekin



Maria Osés herriko idazle gaztea eta Jokin Mitxelena marrazkilaria saioan



Programazioa iragartzeko, Ibon Sáenz de Olazagoitiak kartela eta eskura banatzeko postala diseinatu dizkigu

Liburu aurkezpenak

Patxi Irurzun *El tren de los locos* liburua aurkeztera etorri da martxoan. Eleberri honek Santa Agedako bainuetxean kokatzen du bere trama, eta gaiaren inguruan ikertzeko, bibliotekako Tokiko Bilduman aritu zen egilea 2021ean. 50 pertsona bildu dira publikoan, eta amaieran, ekarritako liburu guztiak saldu ditu idazleak.



Patxi Irurzun idazlea eta Pierre Jean itzultzailea liburuaren aurkezpenean

Irailean Maria Teresa Telleria arrasatearraren *Sin permiso del Rey* liburuaren aurkezpena antolatu dugu Arrasateko Nagusien Kontseiluarekin elkarlanean, Pertsona Nagusien Nazioarteko Egunaren programaren baitan. Aurkezle eta elkarriketatzaille lanak Asun Agirianok egin ditu. 124 pertsona etorri dira ekitaldi arrakastatsu honetara eta liburuak sinatzeko ilara luzea izan du Telleriak. Oso hunkituta agertu da bera herritarrek egin dioten harrerarekin.



Maria Teresa Telleria liburuak sinatzen

Bibliotekaren Eguna 2022

Urriaren 24a Bibliotekaren Eguna da eta ospatzeko, hilabete zehar hainbat jarduera eskaini ditugu.

Batetik, Alex Gurrutxaga idazleak eta Joana Otxoa de Alaiza pianojoleak eskaintzen duten ikuskizuna antolatu dugu helduentzat, *Txori Kantazale: Xabier Leteren ildoan* izenekoa. Piano doinuak eta hitza uztartzen dira bertan, Leteren “bidaia intimo” bat proposatzen dute, hots, urrats berri bat Xabier Leteren poetika eta kantak gertutik ezagutzeko. Pieza musikal eta testuen artean, bikoteak oso saio aberatsa eta hunkigarria eskaini zigun eta hurbildu ziren 60 pertsonak horrela adierazi zuten.

Bestetik, *Bigarren Eskuko Liburu Azoka Solidario* bi antolatu ditugu, bat udaberrian eta bigarrena urrian. Amerika Elkartea arduratu da liburuen salmentaz, eta jasotako dirua elkartearentzat izan da. Elkartea oso pozik agertu da eman zaion aukeraz, lehen azokan 256,00 € bildu zuten eta bigarren aldiz, egun gehiago jarri zen arren, 241,00 € batu zuten.

Haurrentzat, berriz, ipuin kontaketa bereziak egon dira, dagokion atalean azaldu bezala.

biblioteca

Urriak 24 2022
Bibliotekaren eguna

Urriak 20 osteguna • 18:00 • Santa Marina
GAU BELTZA
Ixabel Agirresarobe
IPUIN KONTAKETA • 6 urtetik gora (aurrez izena emanda)

Urriak 21 ostirala • 18:00 • Kulturete
EZBERDIN BEZAIN EDER
Nerea Arizabarreta eta Mariano Hurlado
IPUIN KONTAKETA MUSIKATUA • 4 urtetik gora (aurrez izena emanda)

Urriak 28 ostirala • 19:00 • Kulturete
TXORI KANTAZALE XABIER LETEREN ILDOAN
Alex Gurrutxaga eta Joana Otxoa de Alaiza
ERREZITALDIA PIANOAREKIN • Helduentzat

Urriak 24tik 28ra • 17:00-20:00 | Urriak 29 • 11:00-13:00 • Kulturete
Bigarren eskuko liburu azoka solidarioa
Mercado solidario de libros usados
Amerika Elkartea

kultur: ate:
ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ARRASATE
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

*Programazioa iragartzeko, Ibon Sáenz de Olazagoitiak
kartela eta eskura banatzeko postala diseinatu dizkigu*



Txori kantazale ikuskizuna



Azoka solidarioa


Biblioporrak eta Neguko Gida

Inguruko liburutegiekin elkarlanean, urtean bi gida osatu eta argitaratzen ditugu liburu, pelikula eta diskoen gomendioekin. Zabalkundeari dagokionez, paperean zein formatu digitalean zabaldu dira, eta ikastetxeetan lehen hezkuntzako irakasleei banatu zaizkie.

Oraingoan, diseinu enpresa aldatu dugu eta Gasteizko Habemus Estudioak egin du.



<https://www.arrasate.eus/eu/udala/udal-sail-eta-zerbitzuak/kultura/biblioteka/files/biblioporrak-2022>



<https://www.arrasate.eus/eu/udala/udal-sail-eta-zerbitzuak/kultura/biblioteka/files/neguko-gida-2023>

Irakur puntua

Bibliotekaren 2023ko egutegia eta ordutegia zehazten duen irakur puntua egin dugu, bai Kulturateko bibliotekari dagokiona, bai Santa Marinako auzo bibliotekarena. Urteetik urtera ilustratzailea aldatzen dugu eta oraingoan Sandra Garayoa eta Aran Santamariari enkargatu diegu lana. Maketazioa eta inprimaketa Ikuxkaren esku egon da.



2023 | biblioteka

URTARRILA	OTSAILA
2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28
MARTXOA	APIRILA
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30
MAIATZA	EKAINA
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30
UZTAILA	ABUZTUA
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
IRAILA	URRIA
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
AZAROA	ABENDUA
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31

Astelehenetik ostiralera / Lunes a viernes 10:00-20:30
 Larunbatean / Sábados 10:00-13:00
 Udako ostialegia / Horario de verano 10:00-14:00/16:00-20:00
 Abuztua / Agosto 9:30-14:30
 Ordutegi berezia / Horario especial 10:00-13:00/16:00-20:00
 Ordutegi murriztua / Horario reducido

MAILEGUA
 Mota bakoitzeko 3 dokumentu. Liburuak 21 egun, besteak 7 egun.
 Berritu daitezke, erreserbarik ez badute.

PRÉSTAMO
 3 documentos de cada tipo. Libros 21 días, otros documentos 7 días.
 Se pueden renovar, salvo que estén reservados.

ARRASATEKO UDALA
 AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

kultur:
ate:



Mundutik Arrasatera

2015. urtean jaio zen Mundutik Arrasatera egitasmoarekin aurrera jarraitu dugu aurten ere. Hiru eragilek parte hartzen dugu bertan: proiektuaren bultzatzaile den Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Ekin Emakume Taldeak eta Udal Bibliotekak. Helburua da herritarron elkar ezagutza eta aniztasunaren errespetua sustatzea.

Hori bultzatu nahian, maiatzean ipuin kontaketa saio berezi bat antolatu dugu, Almudena Taboada egilearen “La tortuga Marian” liburua oinarri hartuta. Fundación Goyenecheko partaideak kontalari apartak suertatu dira eta, gainera, Pertsona Gorren Elkartearen Euskal Federazioko kide batek zeinu hizkuntzara aldebereko itzulpena egin du. 58 pertsona hurbildu dira saio gogoangarri honetara eta idazleak berak zoriondu gaitu.



Fundación Goyenecheko partaideak "La tortuga Marian" ipuina kontatzen

Urtea bukatzeko, abenduan Ndank Ndank Bergarako elkartearekin 'Hondarrezko herria' emanaldi musikatua eskaini dugu euskaraz, woloferaz eta serereraz. Orotara 70 lagun bertaratu dira, haurrak zein helduak.



Mundutik Arrasatera ipuin kontaketa Kulturaten

Irakurketa Erraza irakurleen taldea

Azken urteotan Fundación Goyenecheko irakurle taldea dugu bibliotekan. Astearte goizetan biltzen dira haur bibliotekan. Liburuak lortzen dizkiegu eta begirale batekin irakurtzen dituzte liburuak. Honez gain, San Juan de Dios ospitaleko irakurle taldeko zenbat irakurleei ere lortzen dizkiegu liburuak baina hauek euren egoitzetan biltzen dira.



Fundacion Goyenecheko irakurle taldea

Bisita gidatuak

Bibliotekan bisita gidatu hauek prestatu eta aurrera eraman ditugu:

Non	Erakundea	Maila	Saio kopurua
Kulturate	Arrasate Herri Eskola	LH 4-5-6	1
	Arizmendi Ikastola	HH 4	3
	Arizmendi Ikastola	HH 5	3
	Arrasateko Institutua	DBH1	5
	Aita Menni	Helduak	1
	Haurren kontseilua	Haurrak	1
Santa Marina	Arrasate Herri Eskola (Musakola)	HH 3, HH 4, HH 5	26



Bisita gidatuak haur eta gazte bibliotekan

Mintzoan kux-kux

2011z geroztik martxan daukagu egitasmo hau, lehen Bularretik Mintzora deitzen zena. Proiektu honen helburu nagusia da haurrengan irakurketa ohitura indartzea. Hori lortzeko, haurren irakurketa guneak elkartzen dira: familia, eskola eta biblioteka, zirkuito bat osatuz. Izan ere, haurrak bibliotekara datoz egitasmoaren motxilarekin, eta liburu bat aukeratzen dute Mintzoan kux-kux txokoan. Etxean gurasoekin irakurri ostean, eskolan lantzen dute, eta han beste ikaskide batek hartzen du motxila liburuarekin, bibliotekara joango dena, zikloa berrituz etengabe. Horrekin batera, bazkide ez diren haurrei txartela egiten diegu momentuan, liburuak maileguan hartu dezaten.

2022an, zehazki, Arrasateko ikastetxe guztietako 3, 4 eta 5 urteko haurrek parte hartu dute proiektuan; Erguin eta Arizmendiren artean, guztira 25 ikasgela.

Ikastetxeek oso ondo baloratzen dute egitasmo hau eta oso arrakastatsua da, haur denak bibliotekara (Kulturatera edota Santa Marinara) eta irakurketara hurbiltzea lortzen dugulako, haien familiekin batera.



Mintzoan kux-kux txokoa

RAP tailerra

12 eta 18 urte bitarteko gazteei eskaintza erakargarri bat egiteko asmoz, RAP tailer bat antolatzen saiatu gara, bi ostiral arratsaldetan banatuta. Zabalkundean asko ahalegindu garen arren, tamalez ez da talderik osatu. Halere, gairen jarraipen zuzena egiten dihardugu.

Interes guneak

Funtsean, gai bat aukeratu eta haren inguruko materialak elkartzen dira hainbat euskarritan epe jakin baterako. Helburua da erabiltzailearen arreta eta interesa erakartzea, irakurzaletasuna sustatzea eta bibliotekako bilduma modu dinamikoan ikusaraztea.

Interes guneen aukeraketa egiteko irizpideen artean, kontuan izaten ditugu gaurkotasuna duten gaiak, urteurrenak, nazioarteko egun seinalatuak, idazleen heriotzak, eta abar.

Aurten 16 gai aukeratu ditugu, iaz baino 8 gehiago.

Interesguneak

- Lezetxiki. Neandertalen lurraldea
- Ukrainako gerra
- Martxoak 8
- Saharaz Hegoaldeko literatura
- Bizipenak naturan
- LGTBIfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna
- Poesiaren Nazioarteko Eguna
- Annie Ernaux, Nobel Saria 2022
- Domingo Villar (1971-2022)
- Javier Marías (1951-2022)
- Euskaraldia
- Osasun mentala. Bizipenak
- Yoga eta mindfulness haur eta gurasoentzat

Bideotekan

- Afrika eta zinema
- Jean-Luc Godard (1930-2022)
- Nola irudikatu du zinemak osasun mentala?



Interesguneak eta prestatu ditugun gidak

ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA

Bibliotekan ez dugu ahazten komunitatearen ikuspegia, horregatik saiatzen gara herriko eragile desberdinekin parte-hartzea sustatzen, gure inguruko eragile batzuekin aliantzak eraikitzen saiatzen gara. Beti ere liburutegietatik komunitatea indartzeko eta eraldatzeko asmoarekin.

Kids&Us

Arrasateko Udalak urtero deitzen duen Gabonetako eskaparate lehiaketako haurren eta gazteen saria. 2021ean Kids&Us ingeles akademiak irabazi du, 300 euro. Lehiaketan jaso duten diru saria, bibliotekari eta zehazki herriko haurrei itzuli nahi dietela adierazi ziguten eta emaria liburuetan gauzatu da, Kids&Us enpresak argitaletxe propioa baitauka. Bibliotekako proposamena izan da sariaren erdia liburuetan jasotzea eta beste erdia erabiltzea herriko denda batzuetan (Olgeta, Belun) haur txikientzat aukeratutako ingelesezko liburu bereziak erosteko.



J. R. Mendieta kultura zinegotzia eta Kids& Us-eko langileak

Garagune / Goyeneche Fundazioa

2022an elkarte hauekin batera hainbat egun esanguratsu ospatu ditugu: Martxoak 8a, Poesiaren eguna eta abar. Azken egun berezi honetarako, adibidez, bibliotekatik maileguan eramaten dituzten liburuen poemak aukeratzen dituzte eta orri-markak ekartzen dizkigute gure irakurleei oparitzeko.

Honez gain, gabonetan eurek egindako zuhaitz argidunarekin apaintzen dugu Kulturateko sarrera.



Goyeneche fundazioko kideak bibliotekako erabiltzaileentzat egindako orri-markak

Txatxilipurdi Elkarte

Herriko elkarte honekin *Freskura* egitasmoan parte hartu dugu. Zehazki, udaran igerilekuan haur eta gaztetxoei maileguan uzteko irakurgaiak aukeratu eta helarazi dizkiegu: aldizkariak, komikiak eta ipuinak euskaraz. Oso ondo baloratzen dugu elkarlan hau bibliotekaren ohiko eraikinetik aparte gure liburuak erakusten baitira eta ohikoak ez diren erabiltzaileengana iristeko aukera dugulako.



Freskura egitasmoaren kartela

Irakurketa Plana

Eusko Jaurlaritzako Liburutegien Zerbitzuak Irakurketa Plana azaltzeko jardunaldi bat antolatu du Bilboko Artxibo Historikoan 2022ko azaroaren 30ean.

Helburua da 2023.urterako, 12 eta 19 urte bitarteko gazteei zuzendutako ekintzen gainean eztabaidatzea.

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegiko profesionalak bertara gonbidatuak izan gara. Oñatiko udal liburutegiko arduradunak eta Arrasatekoak parte hartu dugu, *Irakurketa nerabezaroan: harreman arriskutsua* izenburua daraman hitzaldi bat emanez.

Tailer honetan Lluís Vicente, María de Vallibana Serrano eta Gemma Lluch adituek ere parte hartu dute.

Topaketa interesgarria eta pizgarria suertatu da, sareko lankide askoren hurbiltasuna jasotzeko aukera paregabea. Egitasmoak 2023.urtean jarraipena izango du eta dagoeneko parte hartzen ari gara gairen inguruko hausnarketa talde batean.



Arrasate eta Oñatiko arduradunak irakurketaren inguruko hitzaldia aurkezten

LANTALDEA

Urteko helburu eta erronkak lortzeko orduan, eta aurrekontu-mugak gorabehera, liburutegiek ezinbesteko baliabidea dute: pertsonak. Arrasateko bibliotekan zerbitzua eskaintzen da 8 langile finkorekin, lanaldi osoan. Horietako 5 langile A2 mailako bibliotekariak gara eta 3 langile C1 mailako liburuzain laguntzaileak. Hauetako liburuzain laguntzaile bat Santa Marina auzo bibliotekako langilea da.

Udan, auzo biblioteka itxi egiten da eta bertako langilea Kulturatera dator. Langileen oporraldian Kulturateko zerbitzua zabalik mantentzeko, liburuzain laguntzaile bat kontratatzen da bi hilabeterako.

Udalak urtero sinatzen du *Gureak* taldearekin *Pauso Berriak* programan parte hartzeko elkarlan hitzarmena. Horri esker, David Raso lankidea etortzen da lanera egunero ordu eta erdiz.

2022an gainera gure lan taldearen bajak betetzeko asmoarekin, esfortzu berezia egin da eta bibliotekako laguntzaileen lan poltsa bat sortu da. 2014. urtetik ez da horrelako prozesu bat martxan jarri eta larri ibiltzen ohi gara lantaldearen ordezipen bat bilatzeko orduan. Oinarriak aztertu, azterketak prestatu eta zuzendu ditugu Pertsonal eta Kultura saileko teknikariek elkarlanean.

Guztira 44 pertsona dauzkagu lan poltsa honetan eta dagoeneko erabiltzen hasiak gara.



Prestakuntza

Erakundeetan informazioa eta dokumentazioa tratatzeko, erabiltzaileak artatzeko eta gizarteak eskatzen dituen gero eta behar handiagoei aurre egiteko, ezagutzak etengabe eguneratu behar ditugu. Prestakuntzak gure begirada zabaltzea eskatzen digu edo besteek zer egiten duten jakitea. Euskadiko Komunitate Autonomoan ez dago informazio eta dokumentazio ikasketa arautuen eskaintzarik. Horregatik, elkarte profesionalen sareetara jotzen dugu heziketa gaurkotua jasotzeko orduan.

Zentzu horretan, Arrasateko bibliotekak prestakuntzaren aldeko apustu nabarmena egiten du. Urtero jasotzen dugun ikastaroaren kantitatea eta kalitateari erreparatu besterik ez dago.

Ikastaroa	Orduak	Langile kopurua	Antolatzailea
Escaparates culturales	4 (on line)	3	ALDEE ELKARTEA
Informazio eta Dokumentazio Kudeatzaileen VI. Bilkura: Tokiko Bildumak.	5 (aurrez- aurre)	2	ALDEE-UEU
Las bibliotecas ante su futuro	60 (on line)	1	FGSR-UEMC
La importancia de la imagen en el álbum ilustrado	7 (aurrez-aurre)	2	GALTZAGORRI ELKARTEA
Atención al usuario	40 (on line)	1	GALTZAGORRI ELKARTEA
Bisita profesionala: Errenteriako Lekuona Fabrika (Biblioteka zerbitzua)	3	2	ALDEE ELKARTEA
Bisita profesionala: Lazkaoko Beneditarren Dokumentazio Gunea	3	1	ALDEE ELKARTEA ASMOZ FUNDAZIOA
4. hizkuntz eskakizuna ikastaro trinkoa 2022/2023	22 (aurrez-aurre)	1	ARRASATEKO UDALA-EUSKARA SAILA
CDU: descripción, estructura y aplicación	5 (aurrez-aurre)	1	Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzua
Euskadiko Liburutegiaren Legeak 20 urte: geroa irudikatzen	4	1	ALDEE ELKARTEA
Euskadiko Irakurketa Ekintza Plana 2023	4	1	Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzua
Baliabide jarraituen katalogazioa	15	1	ALDEE ELKARTEA

INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

Kulturate

XXI. mendearen hasieran, begi bistakoa da teknologiak gizarte berri bat moldatzen ari direla. Sortzen ari den gizarte berri honetan herritarrak informazio eta komunikazio teknologiekin harreman estua eduki eta erraztasunez erabiliko beharko ditu, eskubide osoko kide izateko. Zentzu horretan, bibliotekako iazko ekipamenduak teknologiarekin du zerikusia. Ekipamendu berri hau erosi da:

-Santa Marina auzo bibliotekan Wifi zerbitzuaren eskaintza gauzatu dugu. Zerbitzuaren kalitatean pausu bat gehiago eman dugu, irakurle gazte eta herritar gehiago erakartzeko helburuekin.

-Liburu irakurgailu elektronikoa mailegurako, Santa Marina auzo bibliotekan irakurketa baliabideak zabaltzeko helburuari erantzuteko.

-2 tablet Daisy formatua jartzeko. Dislexia edo/eta ikusmen arazoak dituzten pertsonei bideratuta dago irakurketa formatu berezi hau. Formatu honen berezitasuna da liburuak aldi berean irakurri eta entzun daitezkeela, letra tamaina, lerroen arteko tarte eta kolorea aukeratu ahal direla.

-Tokiko bildumako dokumentuak digitalizatzeko eskanerra.

-Haur eta gazteen bibliotekan fonoteka zerbitzua sustatzeko musika entzuteko mikro kadena aparailu bat eta aurikularrak.

Ekipamendua	
Azalera erabilgarria (m2)	1.400
Bildumarentzako apalak (m2) (sarbide librea/gordailua)	1.276/550
Irakurpuntuak	182
Ordenagailuak (publikoak/barnekoak)	22/10
OPAC(katalogoa kontsultzeko ordenagailua)	5
Inpresorak (publikoak/barnekoak)	4/4
Eskanerrak (publikoak/barnekoak)	2/3
Ordenagailu portatilak (publikoak/barnekoak)	4/0
Fotokopiagailuak (publikoak/barnekoak)	2/1
eReaderrak (publikoak)	16
Tablet (publikoak/barnekoak)	2/1
Wifi zerbitzua	Bai
Wifi bidez inprimatzeko aukera	Bai
Astean irekitako orduak	55,5

Santa Marinako auzo biblioteka

Toki Argi izena duen eraikinak makina bat urte darama udal zerbitzuak eskaintzen. Bertan dago auzo biblioteka eta urtez urte berrikuntzak sartzen joan gara. Aurreko bi urteetan kanpoko seinalizazioa bukatu genuen, kasu askotan herritarrek zailtasunak zituztela ikusi baikenuen zerbitzua non zegoen identifikatzeko (biniloak ipini genituen leihoetan eta kanpoko eta barneko ateetan). Aurten praktikan ikusi dugu eta erabiltzaileei errazago orientatzen lagundu diela.

Auzo bibliotekak duen espazioa oso txikia da. Estandarrak 350 m² ezartzen ditu eta gure bibliotekak 46 m² baino ez ditu. Ohiko bilduma kokatzeko ere arazoak ditugu eta aurten espazioa egokitzeko ezagutza liburutetik zaharkituak ditugunak xahutu ditugu ondoren eguneratuagoak sartzeko. Horretarako ohiko aurrekontuaz gain Next Generation dirulaguntzen bidez jaso dugun kopurua oso lagungarria izan da (2022 eta 2023an zehar joango gara hau gastatzen)

Teknologia berriak erosteko izaten diren dirulaguntzen bidez eReader berri bat erosi dugu.



Santa Marinako auzo bibliotekako sarrera

Ekipamendua	
Azalera erabilgarria (m ²)	46
Bildumarentzako apalak (m ²) (sarbide librea/gordailua)	51/3
Irakurpuntuak	20
Ordenagailuak (publikoak/barnekoak)	2/1
OPAC(katalogoa kontsultzeko ordenagailua)	0
Inpresorak (publikoak eta barnekoak)	1
Fotokopiagailuak (publikoak eta barnekoak)	1
eReaderrak	1
Wifi zerbitzua	Bai
Astean irekitako orduak	17,5

FINANTZAKETA

Finantzaketa alorrean azken hiru urteetako bilakaera erakutsi nahi dugu.

Azken bi urteetan material bibliografikoa erosteko Kulturaren dagoen bibliotekaren aurrekontua 40.000 €koa izan da, eta, halere ez dugu betetzen bildumari dagokion estandarra.


Bestalde, adierazgarria da Santa Marinako auzo bibliotekaren eskuraketa bibliografikorako partidak ez duela igotzerik izan azken 16 urteetan: 2.500 €-koa jarraitzen du izaten.

Horregatik, gure liburutegietako funtsak erreferentziazkoak izaten jarraitu dezaten, irakurleei eskaintza zabal eta anitza eman nahian, atzera pausuak ez izateko 2022ko udazkenean kaleratu zen Europar Batasunak finantzatutako Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan liburutegietako funtsak berritzeko eta/edo handitzeko NEXT GENERATION EU dirulaguntza berrira aurkeztu ginen.


Arrasateko udal bibliotekak 2022ko abenduaren 22an argitaratutako ebazpenaren arabera 7.160,00€ jaso du, bi zatitan banatuta: Santa Marina auzoko bibliotekak 3.580,00 € jasoko du eta liburutegi zentralak beste 3.580,00 €. Hasieran erosteko epea zein gastua justifikatzekoa 2022 urtean gauzatzekoa ziren. Baina denbora gutxi zela eta, epea 2023ko maiatzaren 1era luzatu da.

Irakurketa ludikoa sustatzeko eta diziplina artistiko ezberdinen bitartez publikoa literaturara gerturatzeko jarduerak antolatzen ditugu; ekintza motak ezagunak eta iraunkorrak dira -literatura solasaldiak, ipuin kontaketak-. Azken urteetan ekintzak burutzeko aurrekontua 20.000 €-tan mantendu da eta zaila egiten zitzaigun irakurzaletasuna bultzatzeko eskaintza zabala gauzatzea. Horregatik udazkenean Kultura saileko arduradunekin eta Alkatearekin bilera egin genuen eta 2023. urteari begira aurrekontua bikoizteko konpromisua lortu dugu.

Eskuraketa bibliografikorako finantzaketa



Irakurketa sustatzeko jardueren finantzaketa



Teknologia berriak ezartzeko edo/eta garatzeko diru-laguntza jaso dugu Eusko Jaurlaritzatik. Ekipamenduan aipatutako gastua 2.979,71€koa izan da. Hortik, Eusko Jaurlaritzak 2.738 € jarri ditu eta Arrasateko Udalak 241,71 €.

Honez gain, Arrasateko bi udal bibliotekek dirulaguntza berri bat eskuratu dugu 2022. urtean, Europar Batasunak finantzatutako *Next Generation EU* izenekoak liburutegietako funtsak berritu eta/edo hornitzeko. Arrasatek 7.160,00 € eskuratu ditu guztira. Fakturak 2022 eta 2023 urteko gastuenak aurkeztuko ditugu eta justifikazioa egiteko epea 2023ko maiatzaren 1ean amaitzen da.

Taula honetan ikus daitezke hornitzaileak eta fakturen kopuruak:

ELKAR BANAKETAK	1.264,89 €
ARRASATEKO ELKAR	831,01 €
IRAKURKETA ERRAZA ELKARTEA	297,47 €
ARABAKO ELKAR KULTURA	1.209,87 €
GUZTIRA Next generation Kulturaten	3.603,24 €

Berriz, SM auzoko bibliotekan 2022 eta 2023-ko fakturak aurkeztuko ditugu:

ARRASATEKO ELKAR (2022-10)	149,29 €
ARRASATEKO ELKAR (2022-11)	257,09 €
DONOSTIAKO HONTZA (2022-11)	391,49 €
ARRASATEKO ELKAR (2023-01)	592,85 €
ARRASATEKO ELKAR (2023-02)	721, 85 €
DONOSTIAKO HONTZA (2023-02)	624, 89 €
ARRASATEKO ELKAR (2023-03)	863,45 €
GUZTIRA Nex generation SM Santa Marinaran	3.601,45 €

Dirulaguntzak udalak jasotzen ditu eta ez zaio gehitzen sail bakoitzaren aurrekontuari. Bitxia da auzoko bibliotekak urteko aurrekontua baino gehiago jaso duela Next Generation EU dirulaguntzaren bitartez. Horregatik, 2023an auzoko liburutegian funtsak erosteko aurrekonturik gabe gera ez gaitezen, jasotako dirulaguntza osoa liburutegi horretan liburuak erosteko erabiltzea eskatuko dugu.

LIBURUTEGI PUBLIKOEN ESTANDARREN BETETZE MAILA

20.000 biztanletik gorako udalerrietako liburutegi publikoek Eusko Jaurlaritzak onartutako 11/2007 Legeak ezartzen dituen zerbitzu batzuk bete behar dituzte.

Arrasaten estandarren garapena horrela jasotzen da:

Adierazlea	Arrasateko udal bibliotekan	20.001etik 30.000ra biztanleko herriak
Zerbitzuguneak	Liburutegi nagusia + haur eta gazte liburutegia	Liburutegi nagusia + hiri liburutegi 1
Azalera (m2)	Kulturate: 1.600 Santa Marina:46	Liburutegi nagusia: 1.500 Gutxieneko eremua: 350
Sarbide libreko funtsak	53.344 dokumentu	44.000 dokumentu
Eskuratze indizea	Bildumaren % 8,16	Bildumaren % 10
Sarbide informatikoa	Kulturate: 20 Santa Marina: 2	Liburutegi nagusia: 20 Hiri-liburutegiak: 10
Langileak	8 langile	11-14 langile
Astean irekitako orduak	55,5	60-70

ONDORIOAK ETA LAN LERROAK

Liburutegi publikoek duela hamarkada batzuk imajinatu gabeko garapena lortu dute, beren espazio, bitarteko eta zerbitzuak izugarri zabaltzeko baitituzte, eskualdeko kultura-zentro bisitatuenak eta erabilienak bihurtu dira.

Arrasateko udal bibliotekaren 2022.urteko argazkiak erakusten digu. Hauek dira ondorioak edo hausnartzeko gaiak:

Bildumari dagokionez, oraindik ez ditugu betetzen Irakurketa Mapan egokitutako estandarrak. Bildu ditugun datuek erakusten dute Arrasateko herritar askorentzat erreferentziazko zerbitzuak direla Udal Biblioteka eta Santa Marinako Auzo Biblioteka. Estandarretara heltzen saiatu behar gara, izan ere, herri baten kultura eta informazio eskubideak kaltetzen ari gara eta erabiltzaile kopuru handia galtzeko arriskuan egon gaituzke. Bibliotekako bilduman inbertitzea demokrazian eta berdintasunean inbertitzea da. Ondorioz, eskuraketa bibliografikoari igoera aplikatu beharko zaio, urtez urte. Horrela, eskaintza eguneratua eta erakargarria izango genuke, edo, adibidez, tokiko aldizkariak zein lurralde desberdinetako egunkari digitalen harpidetzak eskuratuko genituzke.

Bibliotekan antolatzen ditugun irakurketa sustatzeko jarduerak oihartzun handia dute, erabiltzaileen artean jasotako balorazioek eta parte hartze kopuruek adierazten duten bezala. Datorren urtean herritarrek zein erabiltzaileek igarriko dute jarduera kultural gehiago izango ditugula aurrekontu honek igoera nabarmena izan baitu eta hori guztiontzat da berri pozgarria.

Santa Marinako bibliotekak jarraitzen du espazio behar handiekin, 46 m² besterik ez du eta ikasturte honetan wifi zerbitzua jarri dugunetik, igarri dugu gazte eta heldu gehiago etortzen direla. Zerbitzuak azalera gehiagoko tokia behar du. Oso urrun gaude estandarrak agintzen digun gutxienekotik, 350 m² alegia.

Bibliotekak sarbide libreko espazio kulturalak direnez, babes lekuak ere badira, adibidez errekurtsu gutxi dituzten pertsonentzat. Horregatik azken urteotan gure lanak helburu soziala ere badu, gizarteari begira gaude. Komunitatearen arteko loturak sendotzen dituen lekua behar du izan, espiritu sozialagoarekin, ez hainbeste liburuen leku bat, baizik eta pertsonena.

Hau da gaur arte dugun argazkia. Aurrera begira jarritz gero, hauek lirateke lan lerro nagusiak:

-Zerbitzu gutunak herritarrekiko konpromiso formula dira. Bibliotekako zerbitzu gutuna 2020-2022 epealdirako da eta, beraz, aurreko berriztea dagokigu.

-Bibliotekako araudia. Oinarrizko gidalerroak erabiltzeak sistematizatu egiten du liburutegietan egiten den lana, kudeaketari zorrozatasuna eta gardentasuna ematen dizkio eta langileoi ikuspegi sendo eta orokor bat hartzeko balio digu.

-Liburutegien kudeaketan garrantzitsua da plangintza estrategiko bat ezartzea, zeinetan asmoen adierazpen bat egin eta lana bide horretan antolatuko den. Horregatik, plan estrategiko bat egitea dugu erronka, liburutegiko urratsak gidatuko dituen.

-Biblioteka etxera: adin esparru zabalagoa hartu, 70 urtetik gorakoei zerbitzua eskaintzen hasiak gara baina ez dugu herritarren artean promozioa egin.

Arrasateko udal bibliotekak esparru egokia du herritar guztiei hezkuntza, kultura eta informazioa eskaintzeko. Erronka horiek lortzea zaila da taldean gauzatzen ez baditugu, jarduerak programatzen edo diseinatzen ez baditugu, funtzionamendua ebaluatzen ez badugu.

Bibliotekak duen langile taldean guztiok dugu jarrera zabal jokatzeko, erabiltzaileei zerbitzua ematea da lehentasuna baina eurengandik ikasteko aukeraz baliatzen gara, eman bai baina hartzera ere irekiak gaude.

Begi, belarri eta buru zabal lan egiten dugu, eman eta hartzeko aldi berean.

BIBLIOGRAFIA

- 11/2007 Legea, urriaren 26koa, Euskadiko Liburutegiei buruzkoa

<https://www.legegunea.euskadi.eus/webleg00-contfich/eu/contenidos/ley/bopv200706288>

- Euskadiko liburutegi publikoen 2012ko estandarrak

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicacion_profesional_biblio/eu_def/adjuntos/estandarrak_LP_2012.pdf

- Euskarazko argitalpenei buruzko XV. Txostena

<https://www.euskadi.eus/eusko-jauriaritza/-/euskarazko-argitalpenei-buruzko-xv-txostena-2019/>

- Unesco: Manifiesto sobre la biblioteca pública

https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000112122_spa